



AZTERKETAK 29

# **Kutxabank: pribatizazioa ez da komeni zaiguna**


2014ko MAIATZA

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA

# Kutxabank: pribatizazioa ez da komeni zaiguna

<b>Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>1. Gertakariak ELAren salaketak berretsi dituzte</b> .....	<b>4</b>
a) Enpleguaren eta lan-baldintzen bilakaera .....	4
b) Kutxabanken ildoak, bere eginkizun sozialetik gero eta urrunago .....	5
c) Berariazko jokabidea .....	7
<b>2. Gaurko egoera: pribatizazioaren aldeko apustua</b> .....	<b>7</b>
a) Pribatizatzearen ondorioak .....	7
b) Prestakuntza: borondateen erosketa Administrazio-Kontseiluko postuak eskainiaz .....	8
<b>3. Prozesuko gezurrak</b> .....	<b>9</b>
a) «Eredu europarrean Aurrezki-Kutxa tradizionalak ez dute zentzurik» .....	10
b) «Legeak behartzen gaitu pribatizatzerara» .....	10
c) «Gizarte-ekintza etekinen %25era mugatu behar da» .....	12
d) «Kutxabankek ez du laguntza publikorik jaso» .....	12
e) «2011n sinatutako akordioak ez dira bete» .....	13
f) «EAJren hautagaitza da soilik egungo akziodunekin jarraitzeko bermea» .....	13
g) «Ez dago alternatibarik» .....	14
<b>4. Ondorioak eta alternatibak</b> .....	<b>14</b>



Estudios / Azterketak 29

**Azterketa Bulegoa**

[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)

@mrafundazioa

Bilbo. 2014ko maiatza

2011ko ekainaren 14an Banco Bilbao Bizkaia Kutxa eratu zen; bere bazkide-jabe bakarra BBK zen (elkarte anonimo unibertsala-SAU). Banku honek Kutxabank SA izena hartu zuen urte bereko abenduan, arrazoi komertzialak medio.

Presidentearen arteko akordioz, 2011ko ekainaren 30ean BBK, Kutxa eta Caja Vitaleko Administrazio-Kontseiluek, baita Bankukoak ere, hiru Kutxen Integrazio Kontratua onetsi zuten kreditu-erakunde talde bat osatzeko, zeinaren buru Bankua izango baitzen. Hots, Administrazio-Kontseiluek beren negozioa banku bati lagatzea erabaki zuten. Kontratuak aurreikusten zuen hiru Kutxen finantza-negozioa bereizi eta oso-osorik BBK Bank SAUren esku uztea, erakunde honetako akzio-partaidetzen truke (%57 BBKrentzat, %32 Kutxarentzat eta %11 Vitalentzat), Kutxen esku bakarrik bakoitzaren Gizarte-Ekintza propioa zein itunpekoa geratzen zelarik.

Baina erabakia ez zen Administrazio-Kontseiluetan hartzen, hiru Kutxetako Batzar Orokorrek berretsi behar zuten. Operazioaren aldeko alderdiek (EAJ, PSOE eta PP) BBK eta Vital Kutxako batzarretan beharrezko gehiengo zuten (2/3), baina ez Kutxako batzarrean.

2011ko irailean Bilduk akordio bat sinatu zuen BBK eta Kutxako buruekin (Mario Fernandez eta Xabier Iturbe, hurrenez-hurren). Akordio honek Administrazio-Kontseiluek erabakitako Integrazio Kontratua aldatzea zekarren (beraren nobazioa, alegia), eta EH Bilduk hiru kutxetako Batzar Nagusietan horren alde egiteko hitza ematen zuen. Beraz, 2011ko irailaren 16an BBK eta Vitaleko batzar nagusiek, eta irailaren 23an Kutxako batzar orokorrak, hiru erakundeek erabaki zuten hiru erakundeen finantza-jarduera guztia Kutxabank bankuari lagatzea, Integrazio-Kontratu haren baitan.

ELAren posizio historikoa izan zen Hego Euskal Herriko lau Aurrezki-Kutxen batzearen alde egitea (EAEko hirurak, gehi CAN), Aurrezki-Kutxaren forma juridikoari eutsiz. Beraz, bankarizazioaren aurka zegoen sindikatua. Posizio honekin bat, Kutxetako Batzarretan ezezko botoa eman genuen. Horrela jokatu zuen sindikatu bakarra izan ginen.

2011ko irailaren 21ean ELAk publiko egin zuen Kutxabank Bankua sortzeko posizioa. Aurka egoteko zein arrazoi genuen gogoratuko dugu; orduko agiriaren ondorioetan bildu ziren:

- Finantza-sektorean hasitako erreformetan beste urrats bat da, zeinen helburua baita sektore guztia pribatizatzea, Kutxei eragingarri izateko aukera galaraziaz (...) Kutxetan arlo publikoak pisu eta kontrol handiagoa izatea beharrezkoa zen, eta horren orde bankarizazioaren bidetik jotzea erabaki da.
- Erakundeak jakitun dira norabide jakin batean aurrera egingo dutela; hain zuzen, hori adierazten du behin eta berriz aipatzeak aplikagarria den araudiak edota erakunde jakin batzuk derrigortuko dutena, pribatizazioen testuinguru honetan.

- Bankarizazioa izan da abiapuntuko erabakia, eta beste alternatiba batzuk baztertu dira. ELAren iritziz kutzak batu eta Kutxa berri bat sortzea zen biderik egokiena. Banku bihurtzearekin alde batera uzten da erreferentzia bat, desarautze gero eta handiagoko testuinguru batean.
- Kapital pribatuaren sarrerari ez zaizkio ateak ixten. Aitzitik, aukera hau irekita uzten da eta gauzatzeko bideak finkatzen dira.
- Haztea ez da irtenbidea. Erakunde handiak erori izan dira, eta, aipatu dugun moduan, banku europar handien osasuna ez da bat ere desiragarria.
- Aurrezki-kutxen eginkizun soziala kaltetuta geratuko da, eta ez soilik gizarte-ekintzari dagokionez. Atal honetara etekinen %30 bideratzea Kutxabanken erabakiaren baitan geratuko da, eta betiere eginbehar hau saihesteko modua izango du esanaz bere kaudimena hobetu beharra dagoela.
- Integrazio Kontratuak ez du aintzat hartzen Hego Euskal Herriko langileei hitzarmen propioa izateko zor zaien eskubidea. Gainera, Mahai Laboralean erabakitako akordioak zehazten du Kutxek hitza eman dutela 2013 urtea amaitzerako Kutxabankeko langile guztientzako hitzarmen estatala sinatzea.
- Prozesua erabat iluna izan da, bat ere eztabaida sozialik gabea. Gauzak egiteko modu hau, non ez diren aintzat hartu erakunde sozialak eta sindikatuak, Kutxen eta alderdi politiko guztien hautu bat izan da.

## **1. GERTAKARIEK ELAREN SALAKETAK BERRETSI DITUZTE**

### **a) Enpleguaren eta lan-baldintzen bilakaera**

Bankarizazioak lan egiteko moduetan eta berzeroarekiko harremanetan aldaketa nabarmenak eragin ditu; bezeroa zenbaki huts bihurtu da, errentagarritasun helburu bat; bankuarentzat diru-sarreraren arabera “segmentu” jakin bati dagokio, eta “erosteko ahalmena” zein den, produktu bat edo bestea eskainiko zaio.

Hurbiltasuna eta tratu pertsonala galdu egin da; herritar sektore zabalak gizarteratzeko eginkizuna, batik bat erosteko ahalmen txikiena dutenena, ez da “moderno”, ez “efizientea”; inguruko komunitateari zerbitzua eskaintzeko lana aspaldiko kontua bihurtu da.

Langileak estutu egiten dituzte; bakoitzak lortzen duen etekina aztertzen da, lehentasuna era guztietako finantza-produktuak saltzea delarik; honez

gero Kutxabankek edozein finantza-erakunde pribaturen antzera dihardu, eta bere irudiak iritzi publikoan banku komertzialenak izan duen kalte berbera jasan du.

Horrekin batera enplegua zeharo murriztu dute. 2013ko abenduaren 31n Kutxabankeko plantilla EAEn 3.435 langilek osatzen zuten. 2010 amaieran, berriz, 4.467 ziren. Horrek esan nahi du hiru urtean 1.032 lanpostu suntsitu direla, plantillaren %23,1. Politika hau areagotu egin da fusioaren ostean. Lanpostuen %75,7 azken bi urteotan suntsitu da. Ustiaketa-gastuak murriztea eta ondorioz "bitartekaritza-margina" hobetzea da egungo zuzendaritzaren lehentasuna.

Lan-baldintzak okertu egin dira, eta prekarizatu. Kutxabankeko lehen Hitzarmena medio, Estatu mailakoa bera, 2013 eta 2014rako soldatak izoztuta geratu dira, beste hainbat soldata-murrizpenekin batera; mugikortasun geografiko traumatikoa ahalbidetu da, edota postuak betetzeko izendapenak erakundearen irizpide hutsaren menpe geratu dira. Kutxabankeko zuzendaritzak hitzarmena Estatu mailan ezartzea bat dator prekarizatzeko eta lan-kostuak jaisteko bere erabakiarekin. Baita zerbitzuak azpikontratatzeko hautuarekin ere.

ELAk Kutxabankeko zuzendaritzari eskatu zion plantillari kontsulta bat egiteko, langileek zein negoziazio esparru nahi zuten jakitearren. Enpresak ukatu egin zuen. Honen ondorioz, ELAk 2011 amaieran sinadurak bildu zituen Bizkai, Araba eta Gipuzkoan, euskal negoziazio esparruaren alde. 2012ko uztailan eman zitzaizkion enpresari bildutako sinadurak. Euskal Herriko plantillaren %69ak eskatzen zuen bere lan-baldintzak euskal esparruko hitzarmen batean finka zitezela. Halere, Kutxabankek negoziazioa Estatu mailan egitea erabaki du.

### **b) Kutxabanken ildoak, bere eginkizun sozialetik gsero eta urrunago**

Aurrezki-Kutxen izateko arrazoia zen lurralde edo esparru geografiko batean sortutako aurrezki kudeatzea bertan zeuden beharrezko ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Hots, tokiko garapena bultzatzea. Horretarako kreditu erraztatsunak eman behar ziren (baldintzarik egokienetan), sare produktiboarekin konpromisoa hartuz (batik bat ETEekin), baita familiekin ere, bereziki kolektiborik ahulenekin. Gainera, Gizarte-Ekintzaren bidez gizarteari itzuli behar zitzaizkion lortutako etekin ekonomikoak, irabazien maximizazioa berezko helburu ez zelarik.

Kutxabanken ildoak izateko arrazoi horretatik gero eta gehiago aldenitu da; arrisku-inbertsio negoziari eman dio lehentasuna, banku komertzial pribatuek bezalaxe, eta soberakinak erreserba bihurtzen ditu (kapital propioa); beraz, gizarte-ekintzatik kentzen ditu.

Hain zuzen, honakoa nabarmen daiteke:

- **Enpresa eta familiekin kreditua lortzeko dituzten zailtasunak.** Kreditu maila murriztu egin da; interes-tasak oso handiak dira, eta

eskatzen diren bermeak patrimonialak dira batik bat. Confebaskek berak aitortzen du euskal enpresek ordaintzen dituzten interesak europar batez besteko maila baino 2,06 puntu gorago daudela.

- **Enpresa estrategikoekiko konpromiso eza.** Desinbertsio handi bat gertatu da, Iberdrolan edo euskal industriako beste oinarriko enpresa batzutan, esaterako Euskaltelen edota Ibermatican; hauetako kapitalean eta zuzendaritzan sarrera eman zaie putre-funtsen itxura guztia duten inbertsio-funtsei. Funts hauen helburua etekinak epe laburrera maximizatzea da, eta bost axola die enpresa etorkizunean bideragarri izan daitekeen ala ez.
- **Espainiar estatuko enpresa handiak birfinantzatzeko operazioetan gehiegizko esku hartzea.** Kutxabankek diru kopuru handiekin parte hartzen du FCC edota El Corte Inglés-en moduko enpresen finantziazioan, eta diru hori tokiko esparruan kredituak emateko erabili beharko litzateke.
- **Parte hartzea banku txarrean (SAREB).** Kutxabankek 123 milioi euroko kapital ekarpena egin du SAREBen, espainiar Gobernuak sortu duen banku txarrean, eta 1.000 milioi eurorainoko kreditu-lerro bat eman dio aktibo toxikoak erosteko. Horren truke SAREBeko Administrazio-Kontseiluan postu bat eman diote; horrela finantzetako “ohorezko dibisioan” ari da jokatzeko.
- **Etxebizitza eskuratzeko berme hipotekarioa duten maileguetako berandutzarekiko duen jokabidea.** Kutxabankek oraindik ere etxebizitza prozesuei ekiten die, mailegua arrazoi ekonomikoengatik ordaindu ezin duten pertsonak etxetik egozteraino, eta beraz baztertu egiten du funtsezko eskubide bat, bizilekua izatekoa. Ez du berdintzat jotzen berandutza askoz handiagoak dituzten beste mailegu batzuekin (sustatzaile eta eraikitzaileen kasuan), non zorra kitatzeko ondasuna ematea onartu ohi duen.
- **IRPHarekin izan duen jokabidea.** Mailegu Hipotekarioen Erreferentzia-Indize ofiziala (IRPH) desagertu denetik, Kutxabankek ez du betetzen sinatutako eskriturek diotena, hots, indizea desagertzen denean horren ordez Euribor + puntu 1 ezarriko dela (Kutxan IRPH baino askoz txikiagoa); hau 2013ko urrian gertatu zen, eta ondorioz, kreditu hauek hartu zituztenei gailurik handia ezartzen die, hileko 400 euroraino izan daitekeena.
- **Gizarte-Ekintza. Aurten Kutxabankek Gizarte-Ekintzara 27 milioi euro baino ez du bideratuko.** Hau azken urteetako kopururik txikiena da, eta beheranzko joera berresten du. 2007an Gizarte-Ekintzarako 156 milioi euro jarri ziren; 2011n, 72,21, eta aurten, aipatutako 27 horiek. Bere politika da Gizarte-Ekintzaren baitako ondarea saltzea, Kutxabankeko partaidetzak ematen dituen dibidenduen ekarpena osatzeko. Hauek, berriz, erreserbetara bideratzen dira, edota kapital gehikuntzak egitera. Azken hauek arrisku-produktuetako inbertsioa oinarri duen negozio-estrategiarako dira beharrezkoak.

- **Mario Fernandezek enpresarioen hainbat forotan soldaten jaitsieraren alde egin du.** Posizio hau bat dator bi helbururekin: kapitalaren klase-interesekiko duen jarrera adieraztea eta, enpresa askoren hartzekodun izanik, zorra kitatzeko nahia (horretarako enpresa horietan soldatak jaitea exijitzen du).
- **Mario Fernandezek diru-kutxa publikoak hustu dituen kasta politiko-finantzarioaren alde** erakutsi duen jarrera duintasunik gabeko mailara iritsi zen Miguel Blesa ikertu eta auziperatu zuen epaileak iraindu zituenean; Blesa bera “kudeatzaile finantzario” gisa goraiatu egin zuen.

### c) Berariazko jokabidea

Kutxabank pribatizatzeko erabakia, hots, ehun urtetik gorako jardueran metatutako ondare material eta immateriala merkealdian saltzea, ez da ezustean etorri. ELAk bere garaian salatu zuen 2011n erabakitako bankarizazioa pribatizazioaren aurrekaria izango zela. Eta akordio hark berariaz jasotzen zuela pribatizazioaren aukera; hain zuze, hau gauzatzekotan erabakiak Kutxabanken baitan nola hartu behar ziren ere zehaztuta zegoen.

Ondoren izan diren lege-aldaketak pribatizazioa errazteko urratsak besterik ez dira izan. Elite ekonomiko eta politikoak argi zeukan hori egin nahi zuela. Eta Aurrezki-Kutxetako buruak (baita Hego Euskal Herrikoak ere) helburu horrekin bat zetozen.

Hau zuritzeko ez dute aipatu beharrik NMFren edo EBZren zuzentarauak edo MOUan jasotako xedapenak derrigor bete beharra; erabakia hemen hartu zen.

Asmo hori bazegoela frogatzen dute Antonio Damborenearen adierazpenek; PPko gai ekonomikoen arduraduna izanik, duela gutxi esan du pribatizazioa «Kutxabanken sorrera gauzatu zen unetik beretik aurreikusita zegoen». Bat dator, gainera, Santander bankuko buruak, Emilio Botinek, 2009an esan zuenarekin: «Aurrezki-Kutxak deuseztatu beharreko anomalia bat dira.»

## 2. GAURKO EGOERA: PRIBATIZAZIOAREN ALDEKO APUSTUA

### a) Pribatizazioaren ondorioak

Kutxabankeko buru den Mario Fernandezek iragarri du «saihestezina» dela Kutxek Kutxabanken duten kontrola galtzea. Horretarako azaltzen du bost urteko epean hiru Kutxek %30 izango dutela beren esku, eta gainerako %70 kanpoko akziodun pribatuena izango dela.



Beraz, Kutxabaneko presidenteak erakundearen %70 pribatizatzea proposatzen du. Pribatizatzeke zatia, halere, handiagoa ere izan liteke. Gainera, Fernandezek sinestarazi nahi digu «hobe dela geuk egitea». Antza, txikizio hau jasateko errazagoa litzateke «berton» eginez gero.

Mario Fernandezek bere plana epe laburrean zehaztu nahiko luke, datozen hiletan. Plana gauzatzeko bi aukera daude: Batetik, Kutxabanken kapital soziala handitzea, eta operazio honetan Kutxek ez lukete parte hartuko; bestetik, Kutxa ohiek dituzten akzio-paketeak saltzea. Plan hau burutu ahal izateko hiru kutxetako Administrazio-Kontseiluetan eta Batzar Orokorretan onartu behar da.

ELA Kutxabank pribatizatzearen aurka dago erabat. Kapitala sartzek Kutxabanken hautua areagotzeko modua ematen dio, inbertsio-bankaren alde eta gure herriko ekonomia produktiboarentzako laguntza mailaka baztertzeko.

ELAk ez du uste pribatizazioak Gizarte-Ekintzari eusteko eta Kutxabanken euskal sustraiak mantentzeko aukera ematen duenik. Hau manipulazio interesatuaren gailurra da, izan ere, pribatizazioaren bi helburuak horiek lirateke, erakundearen presidentearen esanetan. Errealitateak, ordea, kontrakoa frogatzen du.

Begibistako kontu batzuk:

- Gizarte-Ekintzaren bilakaerari buruz lehenago emandako datuek adierazten dute gaur arlo hau ez dela lehentasuna. Are gutxiago, kapital pribatua sartzan bada, zer esanik ez gehiengoarekin. Aurkakoa sinetsarazi nahi izatea jendeari adarra jotzen saiatzea da.
- Kutxabanken euskal errotzea kontzeptu oso lausoa da; duela gutxi Eusko Jurlaritzako Ogasun sailburua den Ricardo Gatzagaetxebarriak parekatzen zuen Santander bankuak Espainian duen errotzearekin, edota BBVArenarekin (hau erreferentzia geografikorik gabe). ELAren ustez errotzea egokia izango da Aurrezki-Kutxen eredu tradizionalari eutsiz gero, eta ez, bankuen negozio pribatu espekulatiboa hautatzen bada. Aipatu ohi den errotzearen beste adibide bat Caixabank da; bada, erakunde honetako Administrazio-Kontseiluak duela gutxi Batzarrari proposatu dio Banku-Fundazio bihurtzea, eta bere patronatuan hainbat pertsona ezagun sartzek: Cesar Alierta (Telefonicako presidentea), Javier Solana (NATOko idazkari nagusi ohia), edota Carlos Slim komunikazioko magnate mexikarra (munduko lau pertsonarik aberatsenen artean dago bera). Errotzearen eredu ezin hobeak, beraz.

Badirudi une honetan Gizarte-Ekintzaren edota euskal erroen aipamena areago dela pribatizazioa zurrizteko argudioak; eta eredu hori herri honen beharrazan sozial eta ekonomikoetatik gero eta urrunago dago.

Kutxabank EAeko lehen finantza-taldea dugu, gordailuei (guztirako kopuruaren %41,3) zein kreditu-inbertsioei dagokienez (%32,2). Hortaz, bera pribatizatzea oso egitate larria litzateke, eragin izugarria lukeena.



## **b) Prestakuntza: borondateen erosketa Administrazio-Kontseiluko postuak eskainiaz**

2012ko urtarrilean ELAk salatu zuenez, alderdi politikoen arteko eztabaida finantza-erakundearen ereduari buruz baino areago zen Administrazio-Kontseiluko postuak nola banatu behar ziren. Une hartan Kutxabankek Administrazio-Kontseiluko eserlekuak banatzeko akordio bat itxi zuten EAJk eta PPK.

Orain organo honetan bi kide berri sartu dira, biak ere PSE-EE-PSOekoak: Jose Miguel Martin Herrera (bere garaian Etxebizitza sailburua izandakoa) eta Carlos Aguirre, Patxi Lopezen gobernuan Ogasun sailburu izan zena. Gogoratu beharrekoa da bere eginkizuna medio Aguirre jaunari zegokiola Jaurlaritzaren baitan Kutxabank kontrolatzeko ardura nagusia. Jaurlaritzatik atera eta bi urte igaro baino lehenago kontrolatu behar zuen erakundeko Administrazio-Kontseiluko kide bihurtu da: «ate birakorraren politika» azaltzeko adibide nabarmena (horrela izendatzen da botere politikoaren eta ekonomikoaren arteko harreman gaitzesgarria). Halaber, EAJk eta PSE-EE-PSOEk erabaki dute CAFeko Administrazio-Kontseiluan Kutxabanken izenean Miguel Buen sartzea, bera ere PSOEkkoa, besteak beste Patxi Lopezen garaian Herrizaingo sailburuordea izan zena.

Argi dago izendapen hauen bidez alderdi politikoen artean akordio batera iritsi nahi dela Kutxabanken pribatizazioa onartzeko. Administrazio-Kontseiluetako izendapenak itxuraz areago dira borondate politikoak erosteko moduak, eta hauen xedea ez da Kutxabank bezain erakunde garrantzitsu baterako pertsonarik egokienak bilatzea.

Ez dakigu zenbateraino zehatz daitekeen euskal esparruan Europar Batasuneko Greco Txosteneko salaketa; honek aipatzen duenez, alderdi politikoek bankuekiko duten menpekotasuna lotuta dago maileguak barkatzearekin eta autonomia ezarekin. Honek ekar dezake horrelako erabakiak herritarren interesak alde batera utzita hartzea.

### **3. PROZESUAREN GEZURRAK**

Atal honetan saiatuko gara pribatizazioa beste biderik ez dagoela saldu nahi digutenek sarri errepikatzen dituzten argudio batzuk gezurtatzen. Horretarako komunikabide nagusien laguntza izugarria daukate; hauek argudio horiek zabaltzen dituzte, eta ezkutatu edo desitxuratu egiten dituzte aukera horrekin bat ez gatozenon mezuak. Komunikabide gehienek finantza-erakundearen komunikazio- eta irudi-bulegoekiko duten menpekotasunaren adierazgarri da Vocento taldearen (El Correo, Diario Vasco) epe laburreko zorraren birfinantzazioa: 173,9 milioi eurotan bederatzik bankuk mailegu sindikatu baten bidez 2014ko otsailean eman zuten.

Jokabide bada salatzeko modukoa, areago hedabide publikoen kasuan, esaterako EITBrena.

**a) «Eredu europarrean Aurrezki-Kutxa tradizionalak ez dute zentzurik»**

Gezurra. Sinetsarazi nahi digute Europar Batasunean onartzen den finantza-erakunde bakarra banku komertziala dela. Haatik, errealitateak baieztapen hau gezurtatu egiten du. Alemaniako Aurrezki-Kutxen Elkarteko buru den Georg Fahrenschonek esan du, Espainiar estatuaz ari dela, «Kutxek eskualdetasun printzipioa baztertu zuten eta bakoitzak besteei aurre hartu nahi izan zien higiezinaren sektoreko kredituetan. Eskerrak Alemanian ez genuen hankasartze hori egin, askok azken urteotan eskatuagatik ere».

Gainera, Fahrenschonek dioenez, Espainiar estatuan «laguntzak erabili beharko liriateke Kutxak berriro benetako tokiko erakunde bilakatzeko, eta sozietate anonimo bihurtzeko joera oker hori zuzentzeko».

Alemanian indar politikoak bat zetozen Aurrezki-Kutxa bat ere ez zela desegin behar, eta patronala ere honekin ados zegoen.

Beraz, Aurrezki-Kutxen eredu tradizionala aukera erreal bat da, oso egokia gainera, Europar Batasunaren baitan.

**b) «Legeak behartzen gaitu privatizatzer»**

Gezurra. Mario Fernandezek esan du privatizazioa «saihestezina» dela. Halaber, «legeak behartzen gaitu hori egitera; ezin dugu eskema boluntarista batean jarraitu». Iñigo Urkullu Lehendakariak ere esan du «legea bete egin behar da», eta «errealismo» ariketa bat egin behar dela.

Sinetsarazi nahi digute legeak privatizatzer»a derrigortzen duela. Hau gezurtatu aurretik, halere, legediari buruzko hainbat xehetasun gogoratu beharra dago:

- Legeak PPK eta EAJk adostu dituzte. Gainera, Kutxabankeko presidente den Mario Fernandezek babestu ditu. Horrenbestez, legearen ardura ezin zaio Europari, ez beste erakunde batzuri leporatu. CECA (Fainé eta Fernandez) eta de Guindosen ministerioaren arteko hartuemanak zuzena izan da. Eta Kutxa eta Banku Fundazioen Legea (2013ko abendukoa) helburuen neurria egin dute: kutxen sistema hustutzea ahalbidetzen duena.
- Gauza bera esan ziguten bankarizazioaz. Derrigorrezkoa omen zen. Hori ez zen egia, ordea. Benetan hura espainiar Gobernuaren erabakia izan zen, baita Estatuko Aurrezki-Kutxen arduradunena ere, BBK, Vital eta Kutxa barne. Izan ere, bada Aurrezki-Kutxei buruzko Lege bat, erakunde mota honi lekua ematen diena, eta Espainiar estatuko aurrezki-kutxa guztiak ez dira banku bihurtu.

Beraz, prozesuan zehar hainbat alternatiba baztertu egin da. Baina indarrean den legeak ez du pribatizatzeraz derrigortzen:

- Bankarizazioa bertan behera utz daiteke. Beste kontu bat da zer eragingo lukeen atzera egite horrek (autonomia-erkidego batera edota gehienez mugakide diren 10 probintziatar mugatzea; aktibo edota gordailuen merkatu-kuota mugatuak), egungo Aurrezki-Kutxa eta Banku-Fundazioen Legeak ezartzen dituenak (2013ko abenduaren 27an onartu zen hau). Nolanahi ere, nabarmendu beharrekoa da muga horiek erabat subjektiboak direla eta erakundearen kaudimenarekin ez dutela inolako zerikusirik.
- Banku izaten jarraitzea erabakiz gero ere, pribatizatzea ez da derrigorrezkoa. Legeak dio kasu horretan Kutxabanken gisako kreditu-erakunde baten partaidetza duten banku-fundazioek (Kutxek) Espainiako Bankuari urtero finantza-plan bat aurkeztu beharko diotela, hark onetsi dezan. Banku-fundazioek duten bankuaren partaidetza %50etik gorakoa bada edota erakundea kontrolpean badute (hau da Kutxabanken kasua, zeinen %100 Fundazioen esku baitago), gainera inbertsioak dibertsifikatzeko plan bat ere aurkeztu behar dute, eta erakundearen kaudimena bermatuko duen erreserba-funts bat izatea ezinbestekoa da. Beraz, Kutxabankek %100ean Kutxen esku jarraitzeko aukera legoke, betiere dibertsifikazio plana eta erreserba-funtsa sortuz gero.

Erreserba-funtsa sortu beharra da Kutxabankeko zuzendaritzak pribatizazioa zurrizteko erabili duen argudioa. Funtsa sortzea arazo larria omen litzateke. Haatik, ez dago inola ere argi hala izan behar duenik:

- Kutxabankek ez du zehaztu ere egin zenbateko funtsa osatu beharko litzatekeen; beraz, ezinezkoa da esatea hori zaila edo erraza izango litzatekeen.
- Funtsa erakundearen kaudimenarekin lotuta dago, eta beraz, datu ofizialen arabera, Estatuan puntako postuetan dago. Hortaz, ez da logikoa pentsatzea funts hori oso handia izan beharko denik. Are gutxiago erakundearen etorkizuna arriskuan jarriko lukeenik.
- Egia da legeak parametro orokor batzuk finkatzen dituela, eta hauek juzkatzea Espainiako Bankuaren esku uzten du. Ez dakigu Espainiako Bankuak honi buruzko kalkulurik egin ote duen.
- Legeak funts hori osatzeko beharretik salbu uzten ditu kreditu-erakundearen duten partaidetza murrizteko plan konkretu bat egiten duten banku-fundazioak, bost urteko epean eta ezarritako portzentajeetatik behera. Honetaz baliatu nahi dute pribatizazioari ekiteko. Hots, gainerako hipotesiak baztertu egiten dira, helburua haxe baitzen.

Kutxabanke sinetsarazi nahi du ez dagoela pribatizatzea beste aukerarik. Hori ez da egia. Bere sustatzaileek ez dute alternatibaren azterketa sakonik

egin nahi. Alternatiba bakarra dagoela esaten digutenean beste aukerak ezkutatzeko asmoz jokatzten dute.

### **c) «Gizarte-ekintza etekinen %25era mugatu behar da»**

Hau ere ez da egia. Legeak ez du, inongo kasutan, honetara derrigortzen. Kutxabankek zuzendaritzak Espainiako Bankuaren Gomendio bat aipatzen du (2014ko otsailaren 21ekoa). Alabaina,

- Espainiako Bankuaren jakinarazpena gomendio bat da, ez legeko betebeharrak.
- Bankuek bi eratako dibidenduak banatzen dituzte: dirutan eta akziotan. Espainiako Bankuaren gomendioak biak aipatzen ditu. Dibidenduak dirutan banatzeari buruz gomendatzen du etekinen %25etik gora ez izatea. Akzioak emanaz banatzen direnean, berriz, neurritz jokatzera gomendatzen du, besterik zehaztu gabe. Aurrezki-Kutxek ez dituzte dibidenduak banatzen, gizarte-ekintza zuzkitu baizik. Kutxabankek Gomendioari heltzen dio pentsa arazteko gizarte-ekintzara etekinen %25 besterik ezin dela bideratu, eta hori ez da egia.
- Gainera, gomendioak muga horietatik salbuetsi egiten ditu kapital ratio handia duten erakundeak, eta hau da Kutxabanken kasua.
- Bestalde, legedia, araudia eta gomendioak baliatu eta nahierara erabiltzen dira etekinak baliabide propioetara, horniduretara bideratzen jarraitzeko... Edozertara, «dibidendu soziala» delako horretara izan ezik, hau irudia janzteko besterik ez baita.

Beraz, ez da onargarria gomendio horretaz baliatzea Kutxabankek Gizarte-ekintzara bideratzen dituen baliabideak murrizteko.

### **d) «Kutxabankek ez du laguntza publikorik jaso»**

Kutxabank kudeatzen dutenek aipatzen duten argudioetako bat da erakunde honek ez duela laguntza publikorik jaso. Egia da FROBek (espainiar Gobernuak) ez duela dirurik jarri Kutxabanken, baina honek bestelako «laguntzak» jaso ditu, finantza-sistema guztiek bezalaxe:

- Kutxabankek Europako Banku Zentralaren (EBZ) diru-maileguak hartu ditu, oso interes-tasa txikian (%0,5-%1), eta hauek zor publikoa erosteko erabili ditu (%3-4ko tasan ordaindua). Kutxabanken informazio ofizialen arabera, horren ondorioz 2013an 84,5 milioi euroko etekina lortu zuen (urte hortako zerga aurreko emaitza guztira 93,1 milioi euro izan zen). Confebaskek ere jokabide hau kritikatzten du, baina ez dio inori kargu hartzen. EBZk bultzatu duen sistema zital honek finantza-erakundeek zor publikoari esker egiten duten negozioa bultzatzen du, bitartean gobernuari zuzenean dirurik mailegatzen ez dielarik.

- Espainiar estatuko bankuen azken erreskatea areago ezkutatu dute, Geroratutako Aktibo Fiskalen abala medio. Honela erakundeek batetik kaudimen handiagoa lortzen dute, aktibo horiek kalitate gorenekotzat hartzen baitira, eta bestetik, ez dute zergarik ordaintzen. Egin diren kalkuluen arabera, Estatu mailan bankuen geroratutako aktiboak 60.000 milioi euro inguru dira, eta horrek 40.000 milioi euroko «erreskatea» esan nahi du. Hots, administrazioek 40.000 milioiak etorkizunean jarri beharko dituzte. Bada, Kutxabankek, bere balantzearen arabera, 2013 amaieran 1.904 milioi euroko balioa zuten geroratutako aktibo fiskalak zituen; honek etorkizunean diru publiko sarrera handia ekarriko dio.
- Sozietateen gaineko Zerga ordaindu ordez, Kutxabankek dirua jasotzen du. Aktibo fiskalen ondorioz, Kutxabanken etekinak handiagoak dira zergak ordaindu ostean zerga aurrekoak baino. Sinesteko zaila izanagatik, 2013an Kutxabankek 93,1 milioi euroko etekinak lortu zituen zerga aurretik, eta kopuru hori 109,2 milioikoa izan zen «zerga ostean» (16,1 milioi euro gehiago). Gauza bera gertatu zen 2012an ere: etekina zerga aurreko 69,7 milioi eurotik 89,8 milioitara igo zen, zergak ordaindu eta gero.

#### e) «2011n sinatutako akordioak ez dira bete»

Kutxabankek zuzendaritzak eta Bilduk 2011ko Integrazio Kontratuan hitzartu zuten testua ez zettorren bat indar politiko honek publikoki azaldu zuenarekin. ELAk bere garaian egin zuen balorazioan esaten den moduan,

- kapital pribatuari ez zitzaion atea ixten. Aitzitik, aukera hau irekita utzi zuten eta bera gauzatzeko bideak ere finkatzen ziren.
- Ez zen bermatzen gutxienik etekinen %30 Gizarte-Ekintzara bideratuko zenik, portzentaje hau betetzea finantza-kaudimena indartzea beharrezko ez zen kasuetarako geratzen baitzen. Hots, aipamen orokor batekin konpromiso hori saihesteko modu erraza ematen zen.
- Kutxetako Hego Euskal Herriko langileei ez zien aitortzen bertoko hitzarmena izateko eskubidea.

Bilduk kritika egin zion ELAren jarrerari. Guri erantzuteko argudiorik ezean, aipatzen zen akordio hura zuhurtziaren eta ardurazko jokabidearen ondorio izan zela.

Bilduk pribatizazioaren aurkako bere jarrera publiko egin du, eta ELA bat dator honekin. Halere, ez diogu egoki irizten herritarrei zera sinestarazi nahi izateari, bankarizazioa ahalbidetu zen akordioa egin zenetik ia hiru urte igaro direnean, «akordio haiek ez direla bete». Ez dakigu hitzarmen sekreturik ote zegoen ala ez. Baina nabarmena da orduan esaten zena ez zettorrela errealitatearekin bat.

### f) «EAJren hautagaitza da soilik egungo akziodunekin jarraitzeko bermea»

Une jakin batean finkatutako posizioak okerrak edo besterik gabe faltsuak zirela erakusten du hemerrotekako hainbat adibidek. Kasu bakarra aipatuko dugu, oso esanguratsua baita.

Juan Maria Ollora, Maria Jesus Aguirre eta Javier Balza, EAJko kide garrantzitsu eta ezagunak, izan ziren 2012ko urrian Vital Aurrera hautagai-zerrendaren buru, kutxa horretako batzarrerako. Euren programan ziotenez, honakoak ziren beren apustuak: «Hiru Euskal Kutxak Kutxabaneko akziodun bakar gisa mantentzea; (...) Kutxabanken hazkundearen alde egitea, egungo akziodunak soilik mantentzeko eredia oinarritzat hartuta (...)».

Juan Maria Ollora da Kutxabaneko Administrazio-Kontseiluko Komite Exekutiboaren buru (Mario Fernandezek ordez). EAJ eta honek Kutxabaneko Administrazio-Kontseiluan dituen ordezkariak pribatizazioa babesten ari dira. Programa erabat bazterten dute horrela. Honek agerian uzten du gezurra hauteskundeetarako nola erabiltzen den, eta hautetsiek, bozkatu eta biharamonean kanpainan emandako hitzaren aurkakoa egiten dutela.

### g) «Ez dago alternatibarik»

Hau da oinarrian dagoen gezur nagusia. «Ez dago alternatibarik», esaten digute. Haatik, azaldu den moduan badaude alternatibak Kutxabanken finkatu nahi duten banku pribatu komertzial eta espekulatiboaren aldean.

EBn dauden eredu desberdinek (Alemania, Norvegia, Holanda, Frantzia), EBko Finantza-Sistemari buruz prestatzen ari den Zuzentarauaren oinarri izango diren txostenek (Volcker rule, Vickers txostena eta, bereziki, Erkki Liikanen-en taldeak 2012ko urrian aurkeztu zuena) berezko lurraldean errotutako banku minoristen aldeko apustua egiten dute. Inguruko ekonomia errealekiko konpromisoa duen bankaren alde, alegia. Hau da etorkizun jasangarria izateko aukera garantista bakarra.

## 4. ONDORIOAK ETA ALTERNATIBAK

Kutxabank pribatizatzeke erabakia prozesu baten azken urratsa da, eta prozesu horren oinarriak gezurra, gardentasun eza eta eztabaida nahiz parte hartze sozialik gabeko erabakiak izan dira. 2011 urtean, ez zen egia bakarizazioa alternatiba bakarra zela, eta orain ere ez da derrigorrezkoa kapital pribatua Kutxabanken sartzea, %50etik gorako partaidetzarekin.

Kutxabank pribatizatzea espoliazio bat litzateke. Ezin da onartu 150 urteko ibilbidean sortu den gizarte guztiaren ondarea esku pribatuetan

uztea. Nafarroako Aurrezki-Kutxa (CAN) txiki-txiki eginda utzi izana eskandalu politikoa izan zen. CANekin egindako operazioa salatu zen bezalaxe, salatu egin behar da ere Kutxabanken ondarea ematea etekina maximizatzea beste helbururik izango ez dutenei.

ELAk botere politikoari (Eusko Jaurlaritza, Foru-Aldundiak eta Udalak) eta alderdi politikoei eskatzen die halako tresna garrantzitsu bat, hots, EAEko finantza-erakunde nagusia herri honen garapen ekonomiko eta sozialaren alde erabiltzeko aukera, ez dezatela galtzen utzi. Kutxabank kapital pribatuaren esku lagatzea izugarrizko arduragabekeria politikoa litzateke, interes publikoen aurkakoa, besteak beste herri honetan dagoen kapitala kudeatzeko ahalmena izatekoa. Kapital pribatuaren esku utziko litzateke zer nolako finantza-erakunde izango den erabakitzea. Ia oharkabean «Euskal Banku Publiko» bat izateko helburua ahaztu eta berebiziko garrantzia duen kontrol publikoa finantza-tresna pribatizatzen ari dira.

Nabarmendu nahi dugu hartzen den erabakiak ardura politikoak dakartzala berarekin, orain arte izan den dezala. Hau ez da kontu tekniko bat, sarri pentsa arazi nahi diguten moduan. Pribatizatzea aukera ideologiko bat da. Bere mamia eredu bat lehenestea da, non gutxi batzuk negozioa egiten duten era guztietako jardurekin (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, Aurrezki-Kutxak...), gizartearen interes orokorraren kaltetan. Bide batez, tresna honi amore emateak agerian uzten du Eusko Jaurlaritzak ez daukala politika industrialik, propagandak kontrakoa esanagatik ere.

Deigarria da patronalak Kutxabanken inguruan gertatzen dena ikusirik aurka ez egitea. Enpresen interesekoa izan beharko litzateke herriko sare produktiboarekin inplikaturako finantza-erakunde bat izatea, ETEen lagungarri litzatekeena. Confebaskek, ordea, Kutxabanken lerratze honetaz ez du ezer esaten, ezta pribatizatzeak eragingo lukeen galera atzeraezinaz ere. Oso bestelako jarrera dute ugazabek, esaterako, Alemanian, Aurrezki-Kutxen defentsan ari baitira. Kritikatzeko modukoa da ere zenbait sindikatuk (CCOO eta Pixkanaka) prozesu honi guztiari eman dion babes, ohikoa baita euren aldetik zuzendaritzaren proposamenen aldeko botoa (bere garaian bankarizazioaren alde egin zuten); gainera, Euskal Herriko langileei baldintza okerragoak ezartzen dizkien hitzarmen estatal bat ere inposatu diete.

Kutxabank ere espainiar Kutxa eta Bankuen lasterketa eroan sartu da; helmuga, gero eta handiagoa izatea. Cajasurren bezala, haztea izan da helburua, eta bere arduradunen ametsa da oraindik (antza horri esaten diote «lehenengo mailan jokatzea»). Baina haziagatik ez da erakunde bat beti indartzen; hala ikusi izan dugu finantza-sistemaren krisian, edota Cajasur erostean. Nolanahi ere, honelako lehian sartuta etorkizuna etengabeko fusio, absortzio eta antzeko operazioak dira. Italian gertatu da hori (Espainiar estatutako eredu gisa aurkezten dute); han Kutxarik handiena banku bateko akziodun txiki bihurtu da, baita Brasilen ere, non tokiko erakunde publikoak desagertu eta Banco Santanderren eskuetan geratu diren. Honelako apustuek ez dute Kutxabanken iraupena ziurtatzen.



Beraz, ELAk honako eskariak egiten ditu:

- Pribatizatzekeo prozesua geldiaraztea. Alderdi politikoeak eta Kutxabankek zuzendaritzak erakundea pribatizatzekeo helburua baztertu egin behar dute, areago Mario Fernandez berak esan duenean bere plana ez duela inorekin kontsultatu.
- Kutxabankek duen egoerari eta aukerei buruzko debate soziala hastea; abiapuntu izan beharko litzateke zehaztea zein finantza-erakunde nahi dugun, eta helburu horretara iristeko dauden aukerak.
- Bankuaren eta hiru Kutxen Administrazio-kontseiluetan eta Batzar Orokorretan bozkatzen den aukera pribatizatzea bada, ezezko botoa ematea eskatzen dugu. Edonola ere, oso larria denez guztion ondare bat esku pribatuetan lagatzea, aipatutako eztabaida sozialaren ostean herritar guztiei bozkatzekeo aukera eman beharko litzateke erreferendum bidez Kutxabanken erdua zein izan behar den. Gai hau guztioi dagokigu. Ez da posible horrenbesteko garrantzia duen erabaki bat elite politiko eta ekonomiko txiki baten esku uztea.
- EAEko Aurrezki-Kutxen bankarizazioa bertan behera uztea. ELAk hasieratik egin du Aurrezki-Kutxak mantentzekeo apustua. Ez dugu onartzen 2013ko abenduaren 27ko Aurrezki-Kutxa eta Banku-Fundazioen Legea adostu zutenek (PPk EAJk edota Kutxabankek zuzendaritzak) testuaz baliatzea bide hau ixteke. Behar izanez gero legea alda daiteke. Arazoa da ez dutela horretarako borondate politikorik izan, ez 2013ko abenduaren 27a baino lehenago, ezta gero ere.
- Kutxabankek langileen baldintzak euskal esparruko hitzarmen kolektibo bidez arautzea, plantillaren %69ak sinadura bidez eskatu zuen moduan. Halaber, beharrezkoa da azken lau urteotan galdutako 900 lanpostuak berreskuratzea.

Bere komunitatean errotutako finantza-erakunde baten helburu nagusia herri horretako beharrian ekonomiko eta sozialetan oinarritutako eremuan aurrera egitea izan behar da. Alde batera utzi behar da jarduera espekulatiboa, baita dirutza erabiltzea ere Espainiar estatuko enpresa handiei edo banku txarrari maileguak emateko. Diru hori gure herrian inbertitu beharko litzateke, baina bertoko aurrezkiak beste norabait ari dira eramaten. Noski, horri esker Kutxabankek gidariak eta beren babesleak Estatuko botere politiko, ekonomiko eta finantzarioarekin harreman gero eta estuagoa dute: egungo krisi, langabezia, txirotasun eta desberdintasun areagotuen egoera honetara ekarri gaituen jende horrekin, alegia. Finantza-sistemaren jokabideak eta bera desarautu izanak egoera honekin zerikusi zuzena izan dute. Horregatik eredu zeharo desberdina nahi dugu, ez Kutxabank pribatizatu nahi dutenena. Horregatik da hau gai politikoa. Ez dugu nahi gure aurrezkiekin mundu mailako monopoly espekulatiboan jokatzetik!



